

PARADISUAN, BIHOTZA ERDIBITUTA

Lohizune Telletxea Delgado

Oiartzun

Oraindik ere gogoratzen dut biok jolasean, inongo arazorik edota hesirik gabe ibiltzen ginen garai hura, eguzkiak bezainbeste argi genuen garai hura, saltoka eta brinkoka matxinsaltoak bagina bezala ibiltzen ginen garaia. Siriako herrixka batean bizi ginen, Suluk lehorrean hain zuzen, udazkeneko hosto eroria baino leku lehorragoa, baina hain zen atsegina bertan egotea... Eskolatik korrika etortzen ginen elkarrekin, ez zegoen inongo eragozpenik; dena zen perfektua, edo hala ematen zuen behintzat. Etxetik irten bezain laster, *Salam Aleikum* entzuten nuen garai hura gogoan dut oraindik ere.

Orain, gure herria utzi genuenetik, ordea, dena da desberdina. Gahaada eta Akram lehendabizi eta gero bikia, joan ziren egunetik, dena aldatu da. Gahaada, gure amaren izena eta izana biak ziren bat; ederra zen. Haren ile beltz kizkurra bizkarretik behera, gerriraino heltzen zen; haren esku fin eta goxoak; haren begi berde eta sakonak... Akram aitaren izenak, berriz, eskuzabala esan nahi zuen eta guztiz bat zetorren haren izaerarekin.

Gogoan dut eskolatik etorritako egun batean, gure arropak poltsetan sartuta zituztela, gurasoak gure zain zeuden momentu hura, gu alaitzeko irribarre xume bat egiten saiatuz. Baina haien begietan ikus genezakeen ez zela betiko egoera alaia. Honelaxe esan ziguten “bagoaz, hemen ez gaude ongi, mugaz bestalde joango gara, paradisura”. Paradisua Europa zen, baina guk orduan ez genekien, eta 6 urterekin hala onartu genuen, oso ongi ulertu gabe.

Abiatu ginen, urtebete ibili ginen noraezean eta gure egoera okertu besterik ez zen egin, ia jatekorik ere ez genuen. Beste herrialde batera joan ginen, baina hangoek ez gintuzten ulertzen, ematen zuen ez zirela gurekin fidatzen. Hainbat eta hainbat errefuxiatu hiltzen zen itsasoaz bestaldera joan nahian, eta horren berri izateak izutu egiten gintuen. Urtebete hura halaxe joan zitzaigun, eta gero eta tristeago geunden.

Heldu zen irailaren 1a, muga pasa eta itsasontzi xume horietako bat hartu behar genuen eguna. Mugara gindoazela, bat-batean danbateko bat entzun eta Gahaada lurrera erortzen ikusi genuen, eta segidan beste danbateko batekin Akram. Oraindik ere gogoan ditud amaren azken hitzak: “Zuek joan paradisura, ez galdu ilusioa, zuek ilusioz ikustea baita gure nahia”. Hantxe bakarrik geratu ginen Nabiha eta biok. Nire bikia zen Nabiha, baina niretzat nire bihotz erdia zen, bera gabe ez nintzen deus, bihotz erdi galdu bat baino ez. Nabihak amaren antz izugarria zuen, eta eguz-

kia bezain argiak zituen begi berde haiek urduri zeuden momentu hartan. Baina segituan gizon bat hurbiltzen ikusi genuen; berdez jantzitako soldadua zen, poltsiko ugari zituen hark bere jantzietan, eta haietan pentsatzen dut jendea hiltzeko balak zituela. Gizonak keinu bat egin zigun hurbiltzeko esanez bezala, eta ondoren irribarre egin zigun. Haiek ziren haiek zerriak, gurasoak hil ondoren irribarre maltzur hura aurpegian!

Itsasontzi txiki batera eraman gintuzten beste ehunka errefuxiaturekin batera, gehienak umeak. Potoan sartutako sardinak ematen genuen, denak han itsatsita eta elkarren gainean. Gau hartan zorte txarra eduki genuen, itsasoa haserre zegoela ematen zuen eta hantxe eraman gintuen guztiok. Besterik ezin dut esan, ohe batean esnatu nintzelako ondoren. Lehendabizi esan nuena gogoan dut oraindik ere: “Nabiha, non dago Nabiha?”. Segituan jaso nuen berria, nire bihotz erdia itsasorak eraman zuen.

Orain denetarik dut, Apple markako ordenagailua, mugikorra, tableta, lanpostua, etxea... eta gainera paradisuan bizi naiz. Ez dut bete, ordea, amak esandakoa, ez dut ilusiorik; galdu egin dut. Izan ere, ez dut behar-beharrezkoa dudan nire bihotz erdi hori, jaikitzerakoan gauza txarrak ahazten laguntzen eta eguna alaitzen zidan bihotz hori. Itxuraz ongi nagoela ematen duen arren, gaixotasun moduko bat dut, noraezean nabil galdurik; bizitzeko beharrezkoa nuen bihotz erdia joan egin baitzitaidan.